

Zertarako?

Zenbat aldiz gertatu ote zaigu elkarrizketa bat euskaraz hasi eta gaztelaniaz hitz eginez amaitzea, mintzakideak hartara eraman gaituelako, edo besterik gabe geu ohartu gabe eta pisuzko arrazoirik gabe gaztelaniara pasatu garelako?

Zergatik sentitzen gara deseroso horrelako egoeren aurrean?

Zergatik gertatzen zaizkigu horrelakoak?

Nola konpondu ditzakegu egoera horiek?

Gure esku al dago konponbidea bilatzea?

TELP tailerlean duzu erantzuna.

Etorri eta saia gaitzen.



www.emun.com
emun@emun.com
Tel: 943.711.847

ARRASATE | ANDOAIN | BERRIOZAR | DERIO



Euskaraz eroso, nonahi eta noiznahi sentitzeko **tailerra**

Zer da TELP tailerra?

Nori ez zaio gertatu denda, erakunde edo beste edozein tokitara joan eta euskaraz hitz egiten hasitakoan, beste pertsonak euskararik ez dakiela esan eta, deseroso sentitzea? Edo alderantziz, norbaitekin gaztelaniaz hitz egiten hasi eta euskaraz badakiela ondoren konturatzea?

TELP (Taller d'Espai Lingüístic Personal) tailerrari esker horrelako egoeretan dugun jokabideaz ohartuko zara eta naturaltasunez eta eroso nola jokatu behar dugun ikasiko duzu. Hobetzeko ditugun ohituretan eragiteko baliabideak eskaintzen dizkizugu, ohitura eta esperientzia propioei arreta berezia jarriz. Izan ere, inguruko hizkuntza ohiturak euskalduntzeko, lehenik norberarenak aztertu eta zuzendu beharko ditugu. Azken finean, euskaraz mintzatzeak ez digu zalantzarik sortu behar eta modu erosoan jarduteko aukera gure esku dagoela argi izan behar dugu.

TELP tailerrak ez dizu ez dakizunik erakutsiko; TELPak, duzun ezagutza beste modu batera antolatzen erakutsiko dizu. Begirada berri bat zeureganatzen lagunduko dizu eta zure hobetzeko aukerak ikusteko lagungarri izango zaizu.

Egin nahi duzun hori nola egin erakutsiko dizu, pauso txikiak emanez, oso urrutira hel zaitezten

TELP ez da...

- * euskara hobetzeko ikastaroa.
- * Euskaltzaindiaren arauetara buruzko ikastaroa.
- * erdarakadak zuzentzeko ikastaroa.
- * gaztelaniaz mintzatzen diren euskaldunak euskaraz mintzatzera behartzeko ikastaroa

Helburuak

- * Euskaraz egiteari lotutako deserosotasuna murriztea.
- * Hizkuntza jokabide asertiboari esker gusturago egotea.
- * Baliabide gehiago sortzea.

Hartzaileak

Euskaraz egiteko gogoia izan eta sarri egoera deserosoen aurrean aurkitzen diren hiztunak dira (hizkuntza kontzientzia-dunak).

Tailer honetan azaldutako teknikak oso baliagarriak dira esparru desberdinetako hiztunentzat: norbanakoak, irakasleak, administrazio teknikariak, enpresetako langileak, etab.

Edukiak

- * Oinarri teorikoak
- * Ikuspegi estrategikoa
- * Baliabideak
- * Konbergentzia mailak
- * Komunikazio asertiboa

Metodologia

- * Parte hartzailea
- * Praktikan oinarritua
- * Egokitua
- * Malgua